



# GAUZAKIAK

## **ABIAPUNTUA:**

Berrogeialdia hastean Bartzelonan nengoen, bakar-bakarrik, familia eta lagunetatik lau pareta eta 500km banantzen ninduten, eta ezinegon orokor honen barruan nire ingurura begiratu eta bakarrik egon eta sentitzen nintzen arren, ehunaka gauzez inguraturik nengoela konturatu nintzen. Hauteman nuen zelan gure egunerokotasunaren hain parte bihurtu diren, zein kasu askotan ia ikustezinak bilakatu diren. Hemen hasi zen nire objektuekiko hausnarketa




Nire logelako mahaia 03/21



Nire logelako mahaia 04/21





Nire etxeko komuna 04/21



“Katxarritos” denda, Gasteiz

## **GAUZAKIAK: Gauzak + Gizakiak**

Gizakion eta objektuen arteko erlazioa lan honen oso atal garrantzitsua da

## **ARRASTOA**

Gastelerako hiztegian (RAE) “rastro” hitza bilatuz gero honako erantzuna ematen digu:

“m. Huella o señal que deja algo o alguien a su paso.”

“m. Vestigio, señal o indicio de un acontecimiento.”

Irudi hauek gertaera baten lekuko dira, objektuak gure existentziaren lekuko diren bezala:



Xilografia eta pintura 20x25



Xilografia 20x25





Xilografia 20x25



Xilografia eta pintura 20x25



Xilografia ta pintura 20x25



Xilografia 20x25





Xilografia eta collage  
20x25

Ikusi dut objektuek, oro har, bi noranzko izan ditzaketela. Alde batetik badaude gizakiok etxean ditugun objektuak, bildu eta gorde egiten ditugunak haiekin edonolako binkulua edo lotura sortu dugulako, memoria eta afektibideadearen babesak dituztenak, eta bestetik zaraman bukatzen dutenak kalitategabeak eta iraunkorrek ez izatearen kalitateak egokitu zaienak.

Nik bi egoera hauen erdibidean dauden objektuekin lan egin dut. Etxean daudenak baina pixkanaka zaramaren multzora bidaltzen ari ditugunak. Hauei balioa bueltatzeko haiekin “jolastuz” eta haien alde estetikoak bilatuz.






















## ONDORIOAK

- Gabezi emozionalak betetzeko batzuk objektuez inguratzen dira, beste batzuk janariaz edo erligioaz... baina objektuak izan eta jabe izatea, neurri batean, ongi ikusia dago, azken telefonoa edukitzea edo modan dagoen arropa izatea, estatusa ematen du ere... nahiz eta mugikor erabilgarria izan edo armairua alkondaraz beterik eduki. Horregatik jada guretzat balioa ez duenari balioa bueltatzen sailatzea erronka interesgarria iruditu zait.
- Lan honek sormenerako bide berriak ireki dizkit, proiektu hau hasi nuenean objektuek gure bizitzetan zer nolako papera zeukaten aztertzea zen nire asmoa, eta pertsonalki helburu hori bete egin dudala esango nuke
- Behaketa prozesu baten bitartez nire etxeko objektuen artxibo lan bat egin dut. Honek inguratzen gaituen (nauten) objektuen gehiegikeri egoeraz ohartzeko aukera eman dit, daukadan gauzetaz ohartzea modu kontzienteago batean kontsumitzeko.
- Azken finean objektuekin lan egiten ibili naiz, objektuak erabili ditut nire beharrak asetzeko oraingoan ere.

## **IZAN DEZAKEEN JARRAIPENA:**

- Oso zaila egiten zait lan honek etorkizunean zer norabide hartuko duen aurreikustea, Izan ere, objektuen gaia oso zabala delako, eta prozesuan zehar norabidea aldatuz joan da etengabe.
- Lan honetan zehar nire etxean dauden objektuetan jarri dut arreta, eta uste dut oso interesgarria izan zitekeela beste pertsonen objektuekin lan egitea, haien inguruan gauza gehiago ezagutzeko bide bat bezala, eta beste pertsonak objektuekin dauzkaten errealitate berriak ezagutzeko aukera izateko.